

“ITHAKA”

(Konstantinos Kavafis)

POEMAREN ANALISIA



Maite Moya Escudero

EDUKIAK

- HITZAURREA ----- 3

- HOMEROREN ODISEA ----- 4

- KONSTANTINOS KAVAFIS ----- 5

- ITHAKA POEMA -----6
 - ANALISIA
 - Balio sinbolikoa
 - Interpretazio pertsonala

- KONKLUSIOA -----11

- BIBLIOGRAFIA -----12

HITZAURREA

*"[...] Έτσι σοφός που έγινες, με τόση πείρα,
ήδη θα το κατάλαβες η Ιθάκες τι σημαίνουν"*

*("[...] Bilakatu zaren jakintsua, hainbeste esperientziarekin
ulertu dukezu Ithakak zer erran nahi duten")¹*

Homero poeta klasiko greziarra guztiz ezaguna zaigun egilea dugu, baita haren lan miresgarriak ere, Iliada eta Odisea. Bere idatziek izugarriko eragina izan dute etorkizuneko literatura unibertsalean, eta eredutzat hartu izan dira mendez-mende.

Poesia epikoaren muina kontsideratzen direlarik, hainbat eta hainbat autorentzat inspirazio iturri bihurtu dira Iliada eta Odisearen obrak, eta haiek jorratutako, landutako bidean eragin zuzena izan dute.

Aurrean dugun lan honetan, Konstantinos Kavafis greziar olerkariak idatzitako "Ithaka" poema aztertzen saiatuko gara, Odiseako Ulisesek pairatutako gertaera gorabeheratsuak oinarri izanik, eta baita idazleak poeman bertan islatu nahi duen balio sinbolikoa kontuan hartuz ere. Gainera, interpretazio pertsonal bat ere emango dugu, ekarpen apal bat egitearen asmo xumearekin.

Lan honen hasieran, Odisearen eta K.P. Kavafis idazlearen beraren inguruko zertzelada batzuk ere emango ditugu, betiere "Ithaka" poema behar bezala ulertua izateko ziurtatzearen.

1 K.P. Kavafis greziar olerkariaren "Ithaka" (1911) poemaren euskal itzulpena, Andolin Eguzkitzak eta Olga Omatosek (1995) egina.

HOMEROREN ODISEA

Nahiz eta hitzaurrean esan bezala, Homero izena guztiontzat ezaguna izan, egia da aski gutxi dakigula beraren inguruan, VIII. mendean Esmirna hiri aldean (gaur egungo Turkia mendebaldean) sortu zelaz aparte. Iliada eta Odisearen idazlea izateagatik da ezaguna Homero, baina, hala ere, askoren ustez egilea baino, ahozko tradiziozko kontakizunak bildu eta forma literarioa eman zizkien, batasun zentzu bat eskainiz².

Homeroren inguruko informazio falta honek zalantza ugari sortu izan ditu historian zehar, "Homeroren auzia" kasu. Dena den, ukaezina da, nornahi izanda Homero ere, poesia epiko horien balioa eta handitasuna.

Odisearekin hasi baino lehen, garrantzitsua iruditzen zait gogoratzea epika literatur generoaren zenbait ezaugarri. Bertso lerrotan osatuta egoten da epika, eta heroi baten balentriak, abenturak eta lorpenak izaten ditu gai bezala. Beraz, ezaugarri historikoak eta mitologikoak bateratzen ditu. Ahozko literatura bezala hasi zena, aedoei esker gorde izan zen eta idatzizkoa izatera bihurtzea lortu zen³.

Odisea epopeia klasikoaren pertsonaia nagusia, Ulises edo Odiseo heroia dugu. Troiako gerraren ostean, haren etxera, aberrira, Ithaka uhartera, alegia, itzultzeko bidaia kontatzen da lan honetan, Penelope emaztea eta Telemako semea bertan itxaroten dituelarik. Zorigaiztoko gertaera ikaragarriak biziko ditu Ulisesek bidaia honetan, hein handi batean Poseidonek (greziar mitologian itsaso eta ozeanoetako jainkoak) eraginak⁴. Etxera itzultzea lortzen duenean, haren emaztearen ezkongai guztiak hilko ditu haren semearen laguntzarekin. Guztira hogeitun urte igarotzen ditu Ulisesek etxetik kanpo, hamar urte Troiako gerran eta beste hamar urte itsasoan galdurik.

² <http://www.mgar.net/docs/homero.htm> [Kontsulta 2017/12/02]

³ Feniziarren alfabetoa eskuratu eta egokitu zuten greziarrek lan hori burutzeko ("Poesia Epikoa" apunteak)


⁴ Izan ere, Poseidon Ulisesekin haserreturik dago, azkeneko honek haren seme Polifemo ziklopea erasotzen baitu.

KONSTANTINOS KAVAFIS

Konstantinos Kavafis (1863-1933) greziar olerkari eta idazle bat izan zen, Alexandrian (Egipto) jaio zena 1863ko apirilaren 29an.

Oso idazle perfektionista izan zen eta tentu handiz landu zituen haren olerkiak, trebetasun handia adieraziz.

Haren obra ez zen grekoz idatzita argitaratu 1935era arte, bera hil zen arte beraz, eta 154 poema aukeratu zituen Kavafisek berak argitara emateko. Dena den, argitaratu zena baino askoz gehiago idatzi zuen gure idazleak haren bizitzan zehar.



Bere poematan gai desberdinak landu zituen. Batzuk gai historikokoak ziren, bereziki garai helenistikoan oinarrituak, izan ere, jakin-min handia zeukan greziar historia, mitologia eta kulturarekiko.

Beste gai nagusi bat amodio homosexuala zen, Kavafis homosexuala baitzen. Gizonezkoen arteko erakarpenaz, amodioaz eta sentsualitateaz mintzatzen da hainbat olerkietan, haren garaiarekiko aurrerakoitasun handia erakutsiz.

Bestetik, gai filosofikoak ere ikus ditzakegu bere obran zehar, gizatiar existentziaren auzi nagusienak aditzera ematen dituelarik.

Bere poesiaren estiloa oso landua zen, xehetasun guztiak zainduz eta greko demotikoa⁵ eta purista konbinatuz. Gainera, sinboloz beteriko olerkigintza baten aurrean gaude, baita ironia kutsuak dituena ere.

Κ. Π. Καβάφης

⁵ Greziera modernoko barietaterik garrantzitsuena da demotikoa, antzinako grezieratik era natural, ez artifizial, batez bilakatu zena.

ITHAKA

Analisia

1911. urtean lan honetan ikusiko dugun Kavafisen “Ithaka” poema argitaratu zen. Olerki honek Ulisesek Odisean egindako etxerako bidaia du oinarri. Dena den, balio sinboliko eta metaforiko sakoneko poema dugu hau, izan ere, interpretazio ugari egin daitezke, Itaka uhartea baino, kontzeptu bat bezala ulertuz hain zuzen. Obra hau behar bezala baloratzeko euskarazko bertsoa⁶ bertsoz-bertso aztertuko dugu:

Lehenik eta behin, “Ithaka” izenburua dugu. Itaka Greziako uharte txiki bat da, itsaso Jonikoan kokaturikoa. Odisea poema epikoan Ulisesen sorteria da, eta baita haren helmuga ere, Troiako gerra ondoren itsasoratzen baita haren aberrira, Itakara, itzultzeko.

Hemen dugu olerkiaren lehengo estrofa:

*Ithakara itzultzeko bidaiari abiatzen zarenean,
egizu otoitz bidea luze izan dadin,
menturez betea, ezagutzez betea.
Lestrygonei eta Zyklopeei,
eta Poseidon hiratuari ez iezaiezu beldur izan,
horrelakorik ez duzu zeure bidean inoiz aurkituko,
zure pentsamenduak gora badirau, baldin eta zirrara
fin batek zure izpiritua eta zure gorputza ukitzen baditu.
Lestrygonak, Zyklopeak,
Poseidon hiratua ez dituzu aurpegiratuko,
zeure ariman ez badiezu abaro ematen,
zure arimak ez baditu jartzen zure aurrean.*

Lehengo bertso-lerroan ikusi dezakegu norbaiti zuzentzen ari zaiola idazlea (*Ithakara itzultzeko bidaiari abiatzen zarenean*). Norbait hori Ulises izan daiteke, zentzu literal batean, edota *bidai*⁷ bat egiten ari den edonor.

6 Itzulpen bat izanik, gogoratu behar dugu olerkia beraren ezaugarri asko galtzen direla itzulpeneko prozesuan.

7 Ondoren ikusiko dugu *bidai* hitzak izan dezakeen zentzua Kavafisen poema honetan.

Ondoren, bidaia hori luzea eta ustekabeko gertakariez betea egotea desiratzea gomendatzen dio (*egizu otoitz bidea luze izan dadin, menturez betea*), horrek emango baitio jakintza, ezaguera, esperientzia (*ezagutzez betea*). Gero, bidaia horretan aurki ditzakeen oztopoez eta izan ditzakeen beldurrez mintzatzen da, baina betiere haiei aurre egin behar zaiela esateko. Aipatzen dituen pertsonaiak (*Lestrygonei eta Zykllopeei eta Poseidon*) Odisean agertzen direnak dira, Ulisesek aurka egin behar dienei. Lestrigonak greziar mitologiako erraldoi antropofagoak (gizajaleak) dira; ziklopeak, aldiz, begi bakarreko erraldoiak (ezagunena jadanik aipaturiko Polifemo da) eta azkenik, Poseidon greziar jainkoa dugu.

Beldur eta zoritxarren aurrean, gure pentsamendua, arima, gogoia, zentzua, osasuntsu mantendu behar ditugu, soilik horrela lortuko baitugu oztopoei irabaztea (*horrelakorik ez duzu zeure bidean inoiz aurkituko, zure pentsamenduak gora badirau [...]*). Izan ere, daukagun jarrerak berebiziko eragina dauka bizitzen dugunaren gaineko pertzepzioan (*zure arimak ez baditu jartzen zure aurrean*).

Hona hemen bigarren bertsoa:

*Egizu otoitz bidea luze izan dadin.
Anitz udagoiz izan dadin,
zeinetan zein plazerrez, zein zoriontasunez
helduko baitzara alde zurretik amesturiko portuetara;
geldi zaitetz merkatu feniziarretan,
eta merkantzia ederretarik egizu pilakera,
perlak eta koralak, anbare eta ebanoak,
eta lurrin laketgarri era guztietakoak,
ahal duzun gehiena lurrin laketgarrietarik;
hiri egipziar askotara joan zaitetz,
ikasteko eta ikasteko dakitenengandik.*

Bigarren parrafo honetan, laburbilduz, egiten ari zaren bidaiaz gozatzeko eskatzen digu idazleak. Esperientzia ugariko bidaia edota bizitza bat izatearen garrantziaz hitz egiten du, bizipen berriak izateko, sentimendu ezberdinak sentitzeko, baita ezagutzaz hornitzeko ere (hiri egipziarrak aipatzen ditu hemen). Lurrinak ere hainbat alditan aipatzen ditu eta metafora bat balira bezala ulertu daitezke hauek, esan ohi baita leku bakoitzak (eta baita pertsona bakoitzak ere) usain berezi bat daukala. Beharbada egileak

adierazi nahi diguna da *usain* desberdinak ezagutu, nabaritu behar ditugula, hau da, esperientzia berri asko bizi behar ditugula. Nahiz eta ondasun materialez hitz egiten duen, (*merkantzia ederretarik egizu pilakera, perlak eta koralak, anbare eta ebanoak*) ez dut uste zentzu material batean ari denik, gauza edota leku horiek duten aberastasunaz, edertasunaz baizik, eta sentiarazi ahal diguten zoriontasunaz edota gozamenaz.

Hau da azkeneko estrofa:

*Zeure adimenduan ukan ezazu lthaka beti.
Horrainoko etorrera da zure jomuga.
Baina ez ezazu presaka zeure bidaia bat ere.
Hobe da anitz urte eder dirauela;
era behin zaharturik ja irlara heltzea,
bidean irabazitako guztiarekin aberats,
espero gabe lthakak aberastasunik ematea.
lthakak bidaia eder bat eman zizun.
Bera gabe ez zinatekeen abiatu.
Baina ez dauka deus besterik zuri emateko.
Era pobrea edireten baduzu, lthakak ez zintuen engainatu.
Bilakatu zaren jakintsua, hainbeste esperientziarekin
ulertu dukezu lthakak zer erran nahi duten.*

Azkeneko estrofa hau oso esanguratsua da, hemen adierazten baitu poetak haren olerkiarekin helarazi nahi duena. Hasieran Itaka beti gure buruan, oroimenean izateko esaten digu, hori baita gure helmuga, gure xede gorena (*Zeure adimenduan ukan ezazu lthaka beti. Horrainoko etorrera da zure jomuga*). Ondoren, berriz ere bidaia ez bizkortzeko, ez estutzeko, gogoratzen digu (*Baina ez ezazu presaka zeure bidaia bat ere*), hobe delako bidaia luze bat izatea, bizipen ezberdinez betea, eta gure jomugara edadeturik ailegatzea, olerkian dioenez bezala, "*Bidean irabazitako guztiarekin aberats*". Bertso-lerro hori eta gero datorrena oso adierazgarria da olerki hau bere osotasunean ulertzeko, Itaka beraren garrantzia, helburu bezala, gutxiesten baitu (*espero gabe lthakak aberastasunik ematea. lthakak bidaia eder bat eman zizun [...] Baina ez dauka deus besterik zuri emateko*). Beraz, nahiz eta Itaka gure helmuga izan, ulertu behar dugu berez, ez digula ezer berezirik, apartekorik emango. Benetan eman diguna zera da, bidaia

eder batez gozatzeko aukera, ezagutzaz eta sentimenduz hornitu gaituena. Gainera, hori gutxi balitz, Itakak desengainatu ahal gaituela aipatzen du, espero ez genuen zer bait izan daitekeelako (*Eta pobrea edireten baduzu*). Gauza jakina da gizakiok oso idealistak garela, ameslariak, eta are gehiago hainbeste desiatzen dugun zerbaitekin. Ondorioz, itxaropen eta ilusio ugari egiten ditugu alde zurretik, eta askotan zaila izaten da errealitatea ideia horiei parekatzea, berdintzea.

Hala ere, azkeneko bi lerroetan aurkitzen da olerkiaren gakoa. Horrela diote: *Bilakatu zaren jakintsua, hainbeste esperientziarekin, ulertu dukezu Itakak zer erran nahi duten*. Orain arte esan dugunarekin jarraituz, Itaka, gure amestutako jomuga honek, ez digu ezer berezirik ekarriko, eta beharbada ez da izango guk espero genuena, baina, bidaiari jakintza ugari irabazi ditugularik, orain bai ezagutuko dugu, ulertuko dugu *Itakak* esan nahi dutena. Eta zer esan nahi du ba horrek? Interpretazio ugari egon daitezke horren atzean eta bat egin dezakegun bidairik zoragarriena guk geure barnean egiten duguna dela izan daiteke. Horrekin esan nahi dudana zera da, bidaiari fisiko guztiak, barneko batek, pertsonal batek, laguntzen dituela. Geure burua aurkitzeko; pertsona bezala bilakatzeko eta ikasteko; jakin-mina, kuriositatea handiagotzeko; gozamina eta ezagutza bilatzeko. Aukerak mugagabeak dira. Jakina da bidaiari guztiak helmuga bat dutela, ez baikara orokorreak noraezean ibiltzen (nahiz eta oso poetikoa izan), atera baino lehen norabide bat badugu. Beharbada, norabide edota bide zehatz bat baino, xede bat dugu, izan ere, askotan ez dakigu nolako ibilbidea egingo dugun desiatzen dugun leku horretara iritsi arte. Gauza da, poemari esan bezala, lekuek edo dena delako jomuga horiek behin baino gehiagotan huts egiten ditugutela. Zer da ba, orduan, geratzen zaiguna? Bada, guk eginiko *bidaiari*, *bizitza* honetan bizi ditugun esperientzia guztiak, aldatu egin gaituztenak, irakatsi egin ditugutenak eta aurrera jarraitzen lagundu ditugutenak. Horregatik azpimarratzen du Kavafisek hainbeste alditan luzea izan behar dela, urte asko iraun behar dituela gure bidaiari honek.

Bizitza, geure bizitza bera da bidaiari, eta hori da ba, azken finean, *Itaka*.

Dena den, esan dugun bezala, interpretazio ugari egon daitezke olerki honen esanahiaren inguruan⁸. Horietako bat, Itaka bizitzaren kontrakoa dela da, heriotza⁹ dela, alegia. Izan ere, azken finean, edozein jatorri izanda ere, guztiok partekatzen dugun nolabaiteko helmuga dugu hori. Eta horra ailegatu

8 Hori da poesiaren (artea beraren) ezaugarriarik ederrenetariko bat, gutako bakoitzak modu desberdin batean ulertu dezakeela olerki bat (idazlearen asmo originalaz aparte) haren esperientzien edota izaeraren arabera.

9 Beti esan ohi da heriotza bizitzaren kontrakoa dela (beharbada gizakiok nolabaiteko obsesioa dugulako aurkakotasun indarrak sortzarekin), baina hobe iruditzen zait heriotza soilik bizitzaren beste parte bat izango balitz bezala ulertzea eta definitzea.

arte, bakarrik gure esku dago ehuneko ehunean bizitzea, esperimentatzea, ala ez.

Beste interpretazio bat, Itakak egitura zirkular bat sinbolizatzen duela da, Itaka hasiera eta amaiera dela aldi berean. Ulises Itakatik itsasoratzen da Troiako Gerrara joateko eta ondoren, gerra bukatzerakoan, berriz ere Itaka du helmuga. Bere sorterri, jatorri eta jomuga da beraz Itaka. Interpretazio hau, dena den, nahiko anbiguo edo abstraktua izan daiteke.

Poemaren analisia eta honek daukan balio sinbolikoa ikusita, argi dago oso gai sakona lantzen dela olerki honetan, interpretazio ugari izan ditzakeena. Edozein interpretazio eginda ere, Kavafisek transmititu nahi digun ideia benetan ederra eta inspirazioz beterikoa da eta bizitzaren garrantzia eta handitasuna goraiatzeko ditu. Olerkiaren gaiaren hariarekin jarraituz, ukaezina da guztiok ditugula geure bizitzan xedeak, helburuak, lortu nahi ditugun azken mugak. Dena delakoak izan daitezkeen hauek gure bidean jarraitzen laguntzen digute askotan, indarra ematen digute aurrera jarraitzeko. Olerki honen bidez helarazi nahi zaiguna, ordea, zera da: nahiz eta helburu hauek berebiziko garrantzia izan, ez dira, inondik inora, zoriontsu egingo gaituztenak. Edozer gauza lortzeko ahalegindu behar gara eta era berean, edozein lekura (fisiko zein psikikoa) ailegatzeko ere bide bat egin behar dugu. Bide horretan esperientzia ugari biziko ditugu, ildo guztietakoak. Esperientzia positiboak eta negatiboak izango dira, gozamina eta ezagutza ekarriko digutenak eta baita gure beldurrak gainditzen lagunduko digutenak. Bizipen horietatik guztietatik ikasi egingo dugu eta pertsona bezala bilakatuko gara, gure izaera jorratuz.

Gure xedeek, beraz, ez gaituzte itsutu behar, gure bide propio hori lantzeko, gure bizitza loratzeko gida soilik izan behar dira, nolabaiteko iparrorratza bilakatuz. Bidea baita, *bizitza* baita, haren konplexutasun guztiarekin, benetan zoriontsu egingo gaituena.

KONKLUSIOA

Lan honetan zehar Konstantinos Kavafisen “Ithaka” poema aztertu dugu. Estrofaz-estrofa olerkiaren egitura eta esanahia argitzen joan gara, sinbolo edota metafora desberdinak azalduz eta gure interpretazio pertsonala emanez.

1911an idatzitako poema honek Homeroren Odisean du oinarria, Ulisesek etxera itzultzeko, Itaka uhartera itzultzeko egindako bidaiari hain zuzen. Odiseako, greziar mitologiako, hainbat pertsonaia aipatzen dira olerkian bertan, hala nola Poseidon edo ziklopeak. Ulisesek oztopo hauei, beste askoren artean, aurre egin behar izan zien haren etxerako bidaiari.

Odisearen ideia horretatik abiatuz, egileak bidaiari helmugan garrantziaren edota eraginaren inguruko hausnarketa bat egiten du, aurreko ataletan jadanik ikusi dugun bezala.

Olerkiaren gakoa, azken finean, bizitzak ematen dizkigun plazer txikiez gozatzea izan daiteke, egun bakoitza ahal dugun gehien aprobetxatuz. Argi dago momentu txarrak ere biziko ditugula gure bizitzan zehar, baina horietarako prest egon behar gara, ahalik eta hoberen aurre egiteko eta haietatik ikasteko, soilik beste esperientzia bat balira bezala. Izan ere, bizitza une zoriontsuz eta zoritxarreko dago osatuta, baina horietako bakoitzak laguntzen gaitu gure izaera, adimena eta zuhurtasuna garatzen.

Laburbilduz, olerki hau irakurtzea, aztertzea eta hausnartzea plazer bat izan da, Kavafisek adierazi nahi izan digun mezu eder eta zentzudunaz jabetzeko aukera ezin hobea.

BIBLIOGRAFIA

- Alvarez, Jose María; Chuaqui, Carmen; *Konstantino Kavafis: breves referencias biográficas*. Interneten eskuragarri: <<http://www.jbrignone.com.ar/kavafis.html>>
- Bádenas de la Peña, Pedro (ed./trad.) (1999): *C.P Cavafis. Antología poética*. Madrid: Alianza Editorial.
- Constantin Cavafis. Interneten eskuragarri: <<http://www.dim.uchile.cl/~anmoreir/escritos/cavafis.html>>
- *Constantin Kavafis*. Biografías y vidas. Interneten eskuragarri: <<https://www.biografiasyvidas.com/biografia/k/kavafis.htm>>
- Eguzkitza, Andolin; Omatos, Olga (eds.), (1995): *K.P. Kavafis. Poema antología*, Pamiela. Interneten eskuragarri: <<http://armiarma.eus/emailuak/pamiela/kavafis.htm>>
- Greziar Literatura I, *Poesia Epikoa* apunteak
- Homero (Esmirna 725 a.C.I). Interneten eskuragarri: <<http://www.mgar.net/docs/homero.htm>>
- Igerabide, J.K; (2007): *Ulises. Homeroren Odisearen bertsioa*, Donostia: Erein.
- *Ithaka*. Poetry for students. Interneten eskuragarri: <<http://fla.org/odyssey/wp-content/uploads/Ithaka-Poetry-for-Students-Article-2.pdf>>
- Keeley, Edmund; Sherrard, Philip (trad.) (1992): *C.P. Cavafy, Collected Poems*. Princeton University Press. Interneten eskuragarri: <<http://www.cavafy.com/poems/content.asp?id=74>>
- Savidis, Manuel: *Biographical note, Cavafy*. Interneten eskuragarri: <<http://www.cavafy.com/companion/bio.asp>>
- The Editors of Encyclopaedia Britannica, *Constantine P. Cavafy*. Interneten eskuragarri: <<https://www.britannica.com/biography/Constantine-P-Cavafy>>

